

1/1990 LEGEA, Apirilaren 6koa, Euskal Autonomi Elkarteko Epailaritzza-Barrutietako Hiriburuak Erabakitzeari Buruzkoa. (Hutsen zuzenketa, EHAA 129 ZK., 1990/06/29)

ZIOEN ADIERAZPENA

Euskal Herriko Autonomi Elkartearen Autonomi Estatutuak, 34, 1 ataleko, 2. lerroaldian, dioenez: "Konstituzioko 152. artikuluan erabakitzen denari jarraiki Komunitate Autonomoak probintziak baino ingurune txikiagoa duten barruti judizialak eratzen parte hartuko du, bai beroien hiriburua seinalatzen ere, dena-den horren muga finkatuz." Halaber, 13.1 atalean esaten denez: "Justizi Administrazioari dagokionez, justizia militarra alde batera utzirik, Euskadiko Komunitate Autonomoaren esku egongo dira, bere barrutian, Justizi Boterearen eta Justizi Boterearen Kontseilu Nagusiaren Lege Organikoek Gobernuari ezagutu, erreserbatu edo gainjartzen dizkioten ahalmenak".

Epai-Agintaritzari buruzko uztailaren 1eko 6/1984 Oinarrizko Legearen 35. ataleko 6. zatian esaten denez, Autonomi Elkarteek lege erabakiko dituzte epailaritzza-barrutien hiriburuak.

Bestalde, esandako oinarrizko lege horren erabaki gehigarrietako lehenengoan ematen den legezko agindua betez aldarrikatutako Zedarriketa eta Kokaguneari buruzko abenduaren 28ko 38/1988 Legeak sendetsi egiten du, aurrekoaren ildo beretik, Autonomi Elkartearen Legegintza Biltzarren Legez erabakiko direla hiriburuak, epailaritzza-barrutien mugak finkatzen ditu (I Eraskina) eta barruti horiek, hiriburua kokatzen deneko udalerriaren izenez ezagutuko direla eta hiriburutza hori udalerrri bat bakarrak izango duela erabakitzen du.

Ondorioz, Autonomi Elkarteko epailaritzza-barrutietako hiriburuak zein izango deiren erabakitzea Eusko Legebiltzarrari dagokio, horrela Autonomi Estatutuaren 34.1 ataleko bigarren lerroaldian agindutakoa betez eta Erresumako esandako legeak osabideratuz.

Lege honen edukiari dagokionez, horren alderdirik nabarien gisa zera adierazten da, epailaritzza-barrutien lurralde-eremua erabakitzeke, Zedarriketa eta Kokaguneari buruzko legera jotzeko teknika erabili beharrean, han bertan ematen zen osakide izanezko udalerrien zerrenda bere osoan aldatzea nahiago izan dela. Alde honetatik, erazkoak besterik ez diren aldaketa batzuk sartu direla ohartarazi behar da. Batzuk, izen jakin batzuri buruzkoak dira, lege-testuan erabilitakoak ofizialki onartuekin ez bait zetozen bat. Besteak, udalerrri batzuk sartzean datza, beste udal batzuetatik banandu direnez, berriro eratu bait dira, eta Estaduko legean sartu gabe zeuden.

Xedea

1. atala.– Lege honek, Epai-Agintaritzako oinarrizko legera 35.6 atalean eta Zedarriketa eta Kokaguneari buruzko legera 4.4 atalean agintzen denari jarraiki, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Epailaritzza-Barrutietako hiriburuak finkatzea du xede.

Epailaritzza-Barrutiak: horien ezagupidea

2. atala.– Zedarriketa eta Kokaguneari buruzko legean aipatzen diren Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Epailaritzza-Barrutiak, ondorengo atalean zehazten denez, bere hiriburua kokatzen deneko udalerrriaren izenez ezagutuko dira.

Epailaritzza-Barrutiak: horien hiriburuak eta izenak

3. atala.– Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Epailaritzza-Barrutien hiriburua, hori osatzen duten udalerrien zerrendaren jarraian adierazten dena izango da:

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA

1 Zk.: Udalerrriok osatutako Epailaritza-Barrutia:

Amurrio, Artziniega, Ayala, Llodio, Okondo, Urkabustaiz, Valdegovía.

Hiriburua: Amurrio

Izena: Amurrioko Epailaritza-Barrutia

2 Zk.: Udalerrriok osatutako Epailaritza-Barrutia:

Alegría-Dulantzi, Aramaio, Armiñon, Arraia-Maeztu, Arrazua-Ubarrundia, Asparrena, Baños de Ebro, Barrundia, Berantevilla, Bernedo, Canpezo, Cigoitia, Cripán, Cuartango, Elburgo, Elciego, Elvillar, Iruña de Oca, Iruraiz-Gauna, Labastida, Lagrán, Laguardia, Lanciego, Lantarón, Lapuebla de Labarca, Legutiano, Leza, Moreda de Alava, Navaridas, Oion, Peñacerrada, Ribera Alta, Ribera Baja, Salinas de Añana, Salvatierra, Samaniego, San Millán, Valla de Arana, Villabuena de Alava, Vitoria-Gasteiz, Yécora, Zaldondo, Zambrana, Zuya.

Hiriburua: Vitoria-Gasteiz

Izena: Vitoria-Gasteizeko Epailaritza-Barrutia

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA:

1 Zk.: Udalerrriok osatutako Epailaritza-Barrutia:

Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzaga, Altzo, Amezketa, Andoain, Anoeta, Arama, Asteasu, Ataun, Baliarrain, Beasain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduayen, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gainza, Hernialde, Ibarra, Idiazabal, Iruerrieta, Irura, Itsasondo, Larraul, Lazkao, Leaburu-Gaztelu, Legorreta, Lizartza, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Orendain, Orexa, Ormaiztegi, Segura, Tolosa, Villabona, Zaldibia, Zegama, Zerain, Zizurkil.

Hiriburua: Tolosa

Izena: Tolosako Epailaritza-Barrutia

2 Zk.: Udalerrriok osatutako Epailaritza-Barrutia:

Aizarnazabal, Aya, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Bidegoyan, Getaria, Regil, Zarautz, Zestoa, Zumaia.

Hiriburua: Azpeitia

Izena: Azpeitiko Epailaritza-Barrutia

3 Zk.: Udalerrriok osatutako Barruti Judiziala:

Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Legazpia, Leintz-Gatzaga, Oñati, Urretxu, Zumarraga.

Hiriburua: Bergara

Izena: Bergarako Epailaritza-Barrutia

4 Zk.: Udalerrioek osatutako berritan sortutako Epailaritzza-Barrutia:

Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku, Soraluze-Placencia de las Armas.

Hiribura: Eibar

Izena: Eibarko Epailaritzza-Barrutia

5 Zk.: Udalerrioek osatutako berritan sortutako Epailaritzza-Barrutia:

Astigarraga, Donostia-San Sebastián, Hernani, Lasarte-Oria, Lezo, Orío, Oyarzun, Pasaia, Rentería, Urnieta, Usurbil.

Hiriburua: Donostia-San Sebastián

Izena: Donostia-San Sebastián-eko Epailaritzza-Barrutia

6 Zk.: Udalerrioek osatutako berritan sortutako Epailaritzza-Barrutia:

Hondarribia, Irun.

Hiriburua: Irun

Izena: Irungo Epailaritzza-Barrutia

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA

1 Zk.: Udalerrioek osatutako Epailaritzza-Barrutia:

Abadiño, Amorebieta-Echano, Arantzazu, Areatza, Atxondo, Bedia, Berriz, Castillo-Elejabeitia, Ceanuri, Dima, Durango, Elorrio, Ermua, Garay, Igorre, Iurreta, Izurza, Lemoa, Mallabia, Mañaria, Otxandio, Ubidea, Zaldibar.

Hiriburua: Durango

Izena: Durangoko Epailaritzza-Barrutia

2 Zk.: Udalerrioek osatutako Epailaritzza-Barrutia:

Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, Alonsotegi, Barakaldo, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Valle de Trápaga-Trapagaran.

Hiriburua: Barakaldo

Izena: Barakaldoko Epailaritzza-Barrutia

3 Zk.: Udalerrioek osatutako Epailaritzza-Barrutia:

Ajangiz, Amoroto, Arrieta, Aulesti, Bakio, Bermeo, Berriatua, Busturia, Ea, Etxebarria, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Fréniz, Gamiz-Fika, Gauteguiz de Arteaga, Gernika-Lumo, Guizaburuaga, Ibaranguelua, Ispaster, Kortezubi, Lekeitio, Markina-Xemein, Meñaka, Mendata, Mendexa, Morga, Mundaka, Mungia, Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz, Murueta, Muxika, Nabarniz, Ondarroa, Sukarrieta.

Hiriburua: Gernika-Lumo

Izena: Gernika-Lumoko Epailaritzza-Barrutia

4 Zk.: Udalerrioek osatutako Epailaritza-Barrutia:

Anteiglesia de San Esteban de Etxebarri-Etxebarri Doneztebeko Elizatea, Aracaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Bilbao, Derio, Erandio, Galdakao, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Orduña, Orozko, Sondika, Ugao-Miraballes, Zamudio, Zaratamo, Zeberio.

Hiriburua: Bilbao

Izena: Bilbaoko Epailaritza-Barrutia

5 Zk.: Udalerrioek osatutako Epailaritza-Barrutia:

Arcentales, Balmaseda, Carranza, Galdames, Gordexola, Güeñes, Lanestosa, Sopuerta, Trucios, Zalla.

Hiriburua: Balmaseda

Izena: Balmasedako Epailaritza-Barrutia

6 Zk.: Udalerrioek osatutako Epailaritza-Barrutia:

Barrika, Berango, Gatica, Getxo, Gorliz, Laukiz, Leioa, Lemóniz, Maruri, Plentzia, Sopelana, Urduliz.

Hiriburua: Getxo

Izena: Getxoko Epailaritza-Barrutia

XEDAPEN GEHIGARRIA

Udalak elkartu edo banatu izanagatik, oraingo udalerrietako mugarteetan izan daitezkeen aldaketak direla eta, Lege honetan ezarritako Epailaritza-Barrutien eremuetan ez da aldaketarik egingo.

AZKEN XEDAPENA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritza-Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamonean jarriko da indarrean.